

IKUSMIRA GURE ARTEAN DEN JENDE HORI



Inauteriak badu normaltasunari burla egiteko gaitasuna, ordena desordenatzeko atrebentzia, kabala zoratzeko indarra. Eta oraindik inauteriaren arimari eusteko indarra duten tokietan lezioa ematen digute urtero. Festan murgiltzen denak bere bu-
rua astintzen du eta begira dagoena xaxatu. Astakeriaren mu-
gara gerturatzen da, begira dagoena aztoratu, egin ezin daitekeena lotsagabe egin, lasaitasuna umore zorrotzez leher-
tu. Nolako ajea ote du jende berezi horrek? Nolako kezak buel-
tatzen ote zaizkie inauteriak bukatzen direnean? Zerk egiten ote die grazia? Zirrargarria eta zoragarria begitantzen da inau-
terietan hankaz gora ibiltzen direnek gainontzeko egunetan gurekin mundu zoro hau partekatzen dutela pentsatzea.